


# Aretxagazeta

FELIS BELTRAN DE HEREDIA  
ANDRA MARI 07 - 2 EZK  
ARETXABAleta

Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaleta • 1999ko azaroak 4 • 178. zka.



## Noizko erreka garbia?

Kolektore lanak gabonetarako bukatuta

*horma armairuak*

**AZKARATE  
ARozTEGIA**

ARETXABAETA 943 77 01 24  
BERGARA 943 76 47 19

*Ateak, leihoak,  
horma armairuak, tarimak  
eta parketak*

**tolesgarriak**

**horma armairu  
irristagarriak**

ARDATZA  
*Brikolaketa*

Masterreka, 4 behea. Tf.: 943 76 18 93 • BERGARA

# Deba Garaiko banatzaileen bigarren eskuko autoen lehenengo erakusketa


- 100 auto baino gehiago
- Marka guztiak
- Prezio guztiak
- Berme osoa

**ARRASATE • Azaroak 6 eta 7 (9:00etatik 19:00etara)**

Arruena Parkea (Hiper Eroskiren ondoan)



Antolatzaileak





# Zergatik egon dira urtebetea kaleak hankaz gora? Zer iruditzen zaizu?

## Mariasun Bengoa

(Langilea)

Lanak, ur zikinak errekatik joan beharrean sartzen ari diren hoditik joan daitezen direla uste dut.

Ondo, bada ordua lanok bukatzeko baina ondo iruditzen zait.



## Josu Lazkano

(Langilea)

Errekako saneamenduarekin lotuta dago. Errekako ura garbitzeko, ur zikinak ez daitezzen errekarara joan izango dela uste dut, bestela ez dauka zentzurik herria hankaz gora jartzuak ezer ez egiteko.




## Faustino Páramo

(Langilea)

Kaleko lanak, kanalak sartzeko direla uste dut.

Ondo deritzot horrelako lanak egiteari.



## Mari Jose Domingos

(Langilea)

Hodi bat jarri nahi da ur zikina bertatik joan eta erreka garbitzeko.

Ondo iruditzen zait erreka garbitzea, lanak azkarrago joango balira hobeto, baina bueno...



e s k u t i t z a



## Internazionalista eguna

Askapenak udazkeno INTERNAZIONALISTA EGUNA ospatzen du 1990. urteaz geroztik. Aurten Astigarragan egingo da azaroaren 7an. Egun honetan, munduko herri guztietako internazionalistak gogora ekartzen ditugu. Askatasuna, justizia eta duintasunaren aldarrikapenean aurrera eramanez diren balentria guztiak oroitzen ditugu eta batez ere gaur egun oraindik munduko hainbat eta hainbat lekutan ematen diren borroka ezberdinak gogoratzen ditugu. Mundu berri baten alde, dena eman duten gizon eta emakumeak ondratu nahi ditugu. Herri bezala, euskal gizarte bezala, ekitaldi politiko, kultural, musika, erakusketa,... eta abarren bitartez elkartasun internazionalista

ospatu nahi dugu. Guzti hau beste herri eta kulturetako gure kideekin batera konpartituaz. Bide batez, guzti hauei omenaldi bat eskeiniatz. Gure aldetik, euskal gizartearekiko eta "munduko edozein lekutan edozeinen aurka egindako edozein injustizia barru barruan sentitzen duten gudari guztiekiko" konpromezu internazionalista eta solidarioa berrindartuz.

ELKARTASUN INTERNAZIONALISTA ez da printzipio etiko bat soilik.

ELKARTASUN INTERNAZIONALISTA behar kolektiboa eta norbanakoa da, herri bezala eta pertsona duin bezala bizirauteko.

ASKAPENA



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria




Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta





Aurten ospatu den V. patxaran lehiaketan berriz, atxabaltarra izan zen irabazlea, Ana Mari Aretxaga hain zuzen. Bigarren eta hirugarren postuan Eibarko Amaia Isasisasmendiren patxaranak geratu ziren. Ana Mariri eskatu beharko diogu hain patxaran ona egiteko sekretua.

### III. gastronomi-folklore jaialdi arrakastatsua

Jende ugari bildu zen herriko plaza inguruan urriaren 24an egin zen III. gastronomi-folklore jaialdian. Extremadura, Gaztela eta Leon, Andaluzia, Errioxa, Galizia eta Euskal Herria ordezkatzeko zituzten dantzari eta musikariak kalejira ostean plazan bildu ziren. Kantu eta dantzak ikusteaz gain zer jan eta edan ere egon zen: Extremadurako urdaiazpiko goxoa, Galiziako pulpo bizia, Andaluziako arrain errea...




- **Noiz hasi zinen patxarana egiten?**
- Bueno... ez dakit. Etxean betidanik egin izan dugu.
- **Nondik datorkizu zaletasun hau?**
- Amagandik. Oso fina zen gure ama horrelako gauzetarako eta nik jarraitu egin nion. Igor, semea ere oso trebea da.
- **Urtean zenbat botila egiten dituzu?**
- Ez dakit, 20-30 bat. Etxean ez daukagu edateko ohiturarik, beraz, ia denak oparitzeko izaten dira.
- **Lehiaketetara aurkezteko ohitura duzu?**
- Aretxabaleakoan bakarrik parte hartzen dut. Lehenengo urtean pasatu egin zitzaidan baina

#### Ana Mari Aretxaga Patxaran lehiaketako irabazlea



- hurrengo lauretan izan naiz eta guztietan jaso dut sariren bat.
- **Nola egiten duzu patxarana?**
- Uf! Ezin da kontatu, bakoitzak bere sekretua izaten du. Oinarrizko osagaiak anisa eta aranak dira, gainontzekoak norberaren esku geratzen dira. Anisa, horretarako berezia erabiltzen dut eta aranak, berriz, Gorbea mendian jasotakoak. Patxarana egin ostean botilak leku freskoan gorde behar dira eta argitasunetik urrun.
- **Patxaran mota ezberdinak daude?**
- Bai horixe. Ezagunena aranez egiten dena da baina nik aurten masustaz ere egin dut eta benetan goxoa da.



**LASAGABASTER-en**  
**AUKERARIK ONENA**

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# Elgeako zentral eolikoaren aurkako protestak

Zentral eolikoa eraikitzeko lanak aspaldi hasi baziren ere Elgean, oraindik zeresan ugari ematen ari da hainbat talde politiko, ekologista eta mendizale ez baitago ados.

Pasa den hilaren 19an, Elgeako zentral eolikoa ezarriko den lurren jabeekin akordioa lortu zela adierazi zuten komunikabideek. Akordio horren arabera, "Eólicas de Euskadi S.A." enpresak lurren jabeei urtean 200.000 pezeta ematea erabaki zen, lurren alokairu gisa. Lurren jabeek hala eta guztiz, akordioa behartuta sinatu zutela adierazi zuten.

Azkenengo berri hauen aurrean eta zentral eolikoaren lanak hasita daudela ikusita, protesta ekintzak antolatu ziren. Eskoriatzako Udala eta bailarako hainbat talde politiko, mendizale elkarte, euren artean Murruxio, talde ekologistak eta beste hainbat talde izan ziren

ekintza hauen antolatzaile. Euren, energi iturri berriztagarrien eta konkretuki haize energiaren aldekoak direla garbi utzi nahi dute, baina ez edozein prezioetan.

## Manifestazioa eta mendi martxa

Urriaren 24an manifestazioa egin zen. Eskoriatzatik irten eta Aretxabaletako udaletxeraino izan zen manifestazioa. Jende pilotxoa etorri zen "Elgean zentral eolikorik ez" zioen pankartaren atzean. Pankarta zeraman jendearen artean Aretxabaletako ingurugiro saileko zinegotzia ikusi ahal izan ziren.

Urriaren 30erako, berriz, mendi martxa antolatu zen. Araotzetik irten eta Elgearaino egin zuten mendi irteera ehunen bat pertsonen. Elgean, hasita dauden



Elgeako zentral eolikoaren aurkako manifestazioa

lanei begirada bat bota eta Eskoriatzako ingurugiro saileko zinegotziak hitz batzuk esan zituen.

## EPEH plataformak ekintza ugari antolatuko ditu

Pasa den urriaren 21ean egin zen Aretxabaletako euskal presoak Euskal Herrira plataformaren batzar nagusia. Mikel Uribetxebarria Aldalur plataformako kideak adierazi zuenez, herritar guztiei eta batez ere plataforman sartutako taldeei euren parte hartzea eskatu nahi zaie.

Hori dela eta, joan zen ostegunean, gazte talde eta kirol taldeekin egin zen bilera. Murruxio eta Zaratza mendizale elkarteekin datorren domekako mendi irteera zehaztu zen. Jarrai, agertu zen gazte talde bakarra, eta aipatutako kirol taldeen artean abendurako joku herrikoiak antolatzea ere erabaki zen. Beraz, herriko kuadrilak animatzen has daitezela bertan parte hartzeko.



**MEMESA**

*Industri hornidurak*

Tfnoa: 943 71 24 11  
ARETXABALETA

**OSKAR**

HARATEGIA



Loramendi, 1  
☎ 943 79 71 69



**MAPFRE**

Aseguroak


Errekabarren, 3  
Tfnoa: 943 77 11 76

**GEMES**

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18  
Aretxabaleta

## Galartzako dorretxearen inauguraketa



Dotore geratu da Galartzako dorretxea berriztatu ondoren

Datorren azaroaren 9an Galartzako dorretxea inauguratuko da. Lanak bi ataletan burutu dira: ba-tetik, kanpoko estruktura eta teilatua konpondu ziren, eta, bestetik, lantegi eskolakoeak, dorretxe barrua berriztatu dute. Bigarren ataleko lanek urte erdi inguru iraun dute

eta tarte horretan harria sartu, zorua konpondu, eskailera egin eta berogailua eta telefonoa jarri dituzte. Dorretxeak lau solairu ditu, laurak hutsik, oraindik ez baita erabaki zein erabilera emango zaion. Igogailua jartzeko lekua ere badago eta momentuz jarri ez bada ere, Olaia Etxenausia Udaleko hirigintza saileko teknikariaren esanetan, aurrera begira jarri beharrekoa izango da.

### Kulturako ekintzetarako

Dorretxea Udalarena da eta momentuz bertan zer egin erabaki ez bada ere kulturako ekintzak izango direla nagusi, argi dago. Inma Miguel kultur teknikariak begiradaxo bat bota zion pasa den astean dorretxeari. "Ikastaro trinkoak egiteko leku aproposa izan daiteke baita erakusketak antolatzeke ere" dio Inmak "ideiak hirigintza sailean aurkeztu eta gero denon artean erabakiko dugu zer egin eta nola antolatu."

## Kaleko arketak eta espaloiak konpontzen ibili dira

Udaleko zerbitzuetako langileak, kaleko arketa eta espaloiak konpontzen ibili dira egunotan. Berez apurtu eta konpondu beharrean zeudenei, kolektorearen lanak direla eta apurtutakoak gehitu zaizkie.

Arketak, lur azpitik doazen argi, telefono, gas eta uraren hodiak jotzeko estalkiak, urteak pasatu ahala herdoildu eta ezin zabaldua gelditzen dira. Espaloi eta espaloietako jeitsiera asko, berriz, kolektore lanen erruz geratu dira apurtuta. Hauek guztiak eta herriko plazan zoruak zituen maila edo gorabeherak konpondu eta txukuntzen ibili dira langileak.



*Zubia*  
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA  
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

**BENGOA**  
**URDAITEGIA**

Bertako okelak eta  
mortzilak

Durana, 9  
Tfnoa: 943 79 19 79

**PAGALDAI**  
Opari denda

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14  
ARETXABALETA

## Kurtzebarri eskolakoak Madril eta Bartzelonara


Orain dela aste bi Kurtzebarri eskolako 6. mailako ikasleak "Eskola Ibiltariak" deitzen zaion programa barruan, Madril eta Bartzelonako autonomi elkarteak bisitatu dituzte. Aste beteko esperientzia hau oso aberatsan izan da:



museoak, zoologiakoak, industri ezberdinak... eta hiri handi baten ezaugarriak ezagutzeko eta lagun berriak egiteko aukera izan dute. Hemen ikusten ditugu Bartzelonako zoologikoan eta Madrilgo Debod tenplu aurrean.

## Lantegi eskolako ikastaroak hastear

Datorren abenduaren 15ean emango zaie hasiera lantegi eskolako ikastaro berriei. Arrasaten kokatutako lantegi eskola, Mankomunitatea eta INEMen menpe dago, beraz, ikastaroetan izena eman ahal izateko lehenengo INEMera joan behar da. Abenduan, igeltsero, elektrizitate, arotz eta etxeko tapizeria tailerrei emango zaie hasiera. Lantegi eskolak, bestalde, Antzuolako Olanan etxearen konponketan hartuko du parte. Lantegikoen esanetan, tailer hauetan norbait interesatuta balego lehenbailehen izena ematea komeni da.



## Azaroak 1, urteroko hitzordua

Urtero bezala azaroaren leian, aurten astelehena, Domu Santu eguna izan zen. Haize beroak eta laino artetik agertu zen eguzkiak giro polita jarri zuten. Kanposantura ibilalditxoak eginez jende ugari hurbildu zen, kotxeetan etorri zirenak ere ez ziren faltatu. Herritarrez gain, kanpotarrak ere ibili ziren herriko kanposantuan hildako senitartekoak bisitatzeko. Lore ugari apainduta eta dotore ikus zitezkeen hilobi eta panteoioak.



**M**obiliario  
**ARENAZA**

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

Arientza auzoa  
Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 17 51

**Mitartegari**  
Batezkoa

*Okindegia - Gozolegia*

**Aretxabaleta**

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19  
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta  
Bertako okina

# ETXE MOBEL

MUEBLES



ALTZARIAK



## BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 943 79 41 82

**ARRASATE**

# GRUPO **RK AUZ** **FAGOR**

**ALTZARIAK**



Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51

**ARETXABALETA**

**SUKALDE INTEGRALA**



Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55

**ARETXABALETA**

# Miriam Urkia

## UZEIn hiztegiak egiten

Donostiara Euskal Filologia ikastera joan eta bertan finkatu zuen bizitokia. Karrera bukatzearekin bat hiztegiak egiten dituzten UZEI elkartean hartu zuten eta geroztik bertan dabil hiztegiak egiten. Orain bi urte, berriz, doktore izendatu zuten.

Ofizialki donostiarra bada ere, bertan enpadronatua dagoelako, argi utzi nahi du bera atxabaltarra dela.

**- Zein da zure egunerokoa lana?**


- UZEIn, lexikografia saileko zuzendaria naiz. Sei lagunek egiten dugu Euskaltzaindiko Hiztegi Batuko Lantalderako prestalana, aztertu behar diren hitzen zerrendak prestatuz, arazoak sor ditzaketen hitzei buruzko txostenak eginez, hau da, hitzen historiala bilduz, Etxeparegandik hasi eta gaurko testuetaraino, noski, Aretxagazeta barne.

**- Zein izan da egin duzun azken lana?**

- Eguneroko lan horrekin tartekatuz, Sinonimoen Hiztegi bat prestatu dugu gure sailean. Ia urtebete-ko lana izan da, gauza txukuna eta benetan baliagarria egin nahi izan dugu-eta. Pasa den hilean kaleratu zen.

**- Sinonimoen hiztegi honek zein berrikuntza dakar?**

- Duela hamaika urte atera zen aurrekoa eta, beraz, hiztegia bera ateratzea berrikuntza zen, nahiz gerora beste bi ere aurkeztu dituzten. Baina gurearen berrikuntza nagusia, besteek eskaintzen ez dutena, 23.285 sarreretan kategoria gramatikala ezartzea da eta, dagokionean, euskalkia eta erabilera-marka. Ho-



**“Egunen batean nola idazten edo hitz egiten dugun pentsatu gabe arituko gara euskaraz, hanka sartzeko beldurrik gabe”**

rrera, erabiltzaileak jakingo du zein euskalkitako forma duen eskuartearen eta maila jasokoa den hitza, lagunartekoa, gutxi erabilia, etab.

**- Zein prozesu jarraitzen da hiztegi bat egiteko orduan?**

- Puf! Lan luzea da. Abiapuntu bezala hartzen den materiala oinarritzkoa da, lanaren fidagarritasuna

horren baitan egon daiteke-eta. Sinonimoen Hiztegia-ren kasuan bi aurrean nagusi izan dira: material hori eskuratzea bera eta datu-base eraginkorra antolatzea bestea. Kontu egin sinonimoek beste sinonimo guztiei egin behar dietela erreferentzia eta horrek kontrol itzela eskatzen duela. Material linguistiko aldetik, XUXEN-erako erabili den lexikoa, Ibon Sarasolaren hiztegia, Orotariko Euskal Hiztegia, UZEIko materiala eta gaurko hiztegi eta zerrenda guztiak erabiltzen ditugu, eskuratu ditugunak behintzat.

Hori lortuta, hiztegiak materiala bere lekuan txertatu behar du, adiera-banaketa ondo zehaztu, euskalki eta erabilera markak zuzen ezartzeko frogaketak egin... eta bukaeran azken pasada bat eman, badaezpada.

**- Zergatik uste duzu aldatzen dituela hainbeste Euskaltzaindiak euskarari buruzko arauak?**

- Euskaltzaindiak ia ez ditu arauak aldatzen, jende gehienak kontrakoa uste badu ere. Kontua da orain arte ez dela araurik egon, ohiturak (eta tarteka gomendio batzuk) baizik. Euskaltzaindia hasi da azkenean arauak ematen, aurretik tradizioa ezagutuz eta corpusetan dokumentatuz. Datuetan oinarrituta hartzen ditu erabakiak, nahiz horrek ohiturak aldatzera eraman.

Dena dela, orain arauak eskura ditugu eta lasaiago idatz dezakegu. Denborarekin ohituko gara honetara ere eta egunen batean nola idazten edo hitz egiten dugun pentsatu gabe arituko gara euskaraz, hanka sartzeko beldurrik gabe. Normalizazio bideak berekin dakar egoera honetatik pasa behar izatea.



## Furtum

**“Azken urte honetan lapurreta kopurua haunditu egin da, ia astero honelako kasuren baten berri jasotzen dugularik”**

Gaztelaraz esanahi ezberdina duten robo eta hurto erabiltzen dira, latinez furtum bezala eza-gutzen den hitz hau definitzeko. Euskaraz ere, latinez bezala, hitz bakarra dugu; lapurreta. Hauxe da azkenaldian gure herrian, Aretxabaletan, sarri sarri gertatzen dena.

Azken urte honetan lapurreta kopurua haunditu egin da, ia astero honelako kasuren baten berri jasotzen dugularik. Urte lasai batzuren ondoren, urte hau ugaria izan da lapurretetan. Zergatik ematen dira ordea, azkenaldian hainbeste kasu? Gure bailarak azken urteetan ekonomikoki gora egin du, beste zonalde hauetako pertsonak gure herrira eta ingurukoetara lapurretan etortzea logikoa litzateke. Ez dut nik hipotesi hori hain garbi baina.

Garbi dagoena, urtean zehar etxe ezberdinetan, dendetan, lantegietan lapurretan ibili diren hauek, udan oporrak hartu ondoren, iraila hasi eta berehala bueltatu direla beren lanera. Honela, igaro berri dugun hilabeteetan, urrian, nere belarrietara heldu

diren kasuak gero eta ugariagoak izan dira. Lapurreta asko egon direla entzun dut, modu ezberdinetakoak gainera (Urbaltz tabernan, Zاراia tabernan, Lora-mendi euskara elkartearen, Galtzako dorretxean, bideo-klubean...).

Agian, “beste” norbaitek hau geldiarazten ez duen bitartean, bakoitzak etxeko ate ostean itxaron beharko die lapurrei.

Esan bezala, modu ezberdinetako lapurrak izan omen dira. Batzutan birritan sartu omen dira, besteetan furgoneta edo kamioiaz joan eta barrukoa hustu omen dute...

Lapurrak ere ezberdinak direla entzun dut. Guztiek lokal nahiz etxeak ondo ezagutzen zituzten arren, batzutan “kako” profesionalak izan omen dira, besteetan herriko ume batzuk. Profesional edo ume, garbi dudana gauza bakarra, hauxe da: kabroikume edo putakume galantak bai behintzat.

Igor Etxabe

**EXPRESS**  
**AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16  
Tfnoa: 943 79 23 43

**DOIKALSE**

**Elektroerosio**  
**lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 943 79 82 44



**ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK**

Tfnoa: 943 79 01 51  
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABAleta

Zuzendaria:  
**Lyonel**  
**Arquero**

Dekorazioa:  
**Soraya**  
**Arquero**

# Kolektorea, erreka berreskuratzeko bidea

Kolektorea sartzeko lanak hasi zirela urte bete etorri behar da. Zer egin da tarte horretan? Kaleak hankaz gora jarri, trafikoaren ibilbidea guztiz aldatu, hauts eta lokatz ugari sortu, kamioi eta hondeamakinaren zarrata eta trabak eguneroko bihurtu... Baina ez da aferrik izan jasandakoa. Laster bere emaitzak jasotzen hasiko gara eta orduan ez gara pasatutakoaz gogoratuko.

Mitarte kalea erdi erditik zabaldua egon da, eliza ostean ere badabilta kamioi eta hondeamakinak, baita Otalora kale bukaeran ere, baina ez denbora askorako. Gabon ingururako bukatuta egotea espero da eta lanak doazen eran ikusita halaxe izango dela diote adituek. Lanak bai, urte betean izan ditugu, baina herritarrek baste dakite lanok zertarako izan diren...

## Deba errekekako proiektua

Gipuzkoako erreka zikinena Deba dela esatea gehiegitxo izango da agian. Egia da ordea, ez dagoela batere egoera onean. Hori dela eta, 1996an, Deba errekekako proiektua egin zen Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasaterako. Proiektu honetan, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak hartu dute

parte, laguntza ekonomiko handia eman baitute erreka garbitu eta berreskuratzeko. Aretxabaletako zatiaren aurrekontua hain zuzen, 945 miliokoa da. Lanak hamaika

**“ Kolektorearen helburua bat da, ura batu, ura garbitu eta ura berriz errekarara botatzea”**

hilabetean burutzeko asmoa zegoen eta martxa honetan bete egin

go da epea, Gabon ingururako bukatuta egotea espero baita.

## Kolektorearen helburua

Proiektu handi honen helburua zein den azaltzeko egokiena Luis Errasti hirigintza saileko zinegotzia da. “ Kolektorearen helburua bat da, ura batu, ura garbitu eta ura berriz errekarara botatzea”. Beraz, helburua erreka berreskuratzea da, hau da bizia izatea baina horretarako uraren baldintza biologikoak egokiak izan behar dira, baldintza egoki hauekin bakarrik lortuko baita berriz arrainak izatea bertan. Zer egin honetarako? Errekara doazen ur zikinentzat beste bide bat aurkitu.

## Hondakin-urak bideratu

Kolektorea ur zikinentzako bi-



*Errekaren garbitasuna herritar guztien ardura da*

dea izango da, hondakin-urentzat hain zuzen. Ur hauen artean, ordea, bi eratako urak bereiztu behar dira batetik, etxeko hondakin-urak komunetik botatakoak, garbigailu-arenak... eta bestetik, industri erabilerako hondakin-urak.

Etxeko hondakin-urak zuzenean kolektorera joango dira eta hemendik depuradorara. Industri erabilerako hondakin-urak berriz, aurretik garbituta bakarrik sartu ahal izango dira kolektorean. Industri iharduera bakoitzeko urak, lehenengo, ur lagina hartzen duen kutxeta batera joango dira. Lantegiek botatako uren kutsaduraren arabera batzuk, kutxetara joan aurretik garbituta egon beharko dute. Kolektoreak ondoren, ur zikin hauek bideratu eta ur-depuradoraraino eramango ditu.

## Ur-depuradora biologikoa

Oraindik ez dago zehaztua ur-depuradora non jarriko den, San Prudentzian edo Zubillagan. Hasiera batean Bergarako irteeran jartzea pentsatu bazen ere azkenean, zehatz jakin ez arren, San Prudentzio inguruan izango da.

Ur-depuradora hau biologikoa izango da. Hemen urak, bi tratamendu jasoko ditu; batetik, bakte-

ria anaerobioek materia organikoa deskonposatu eta eraldatu egingo dute eta bestetik, aurrekoari laguntzeko prozesu fisikoak emango dira. Depuradora biologikoa izateak bere abantailak ditu, ura berriz zuzenean errekarara bota ahal izatea, baina kontu handia ere izan behar da. Industrietako hondakin-urak aurretik garbitu gabe etorri gero bakterio anaerobioak hil egingo lirateke eta ur-depuradorak ez luke ezertarako balioko. Ondorioz, lantegiek botatako ur guztiak zehatz-mehatz aztertuko dira.

## Erreka urik gabe?

Norbaitek pentsa lezake

# Urkulutik Bainuetxeko errekaxora bideratuko litzateke ura eta hemendik Debara



Izugarrizko zuloak egin dituzte kaleetan hodiak sartu ahal izateko



Nahiz euri nahiz eguzki ibili dira lanean

hondakin-ur guztiak kolektore hoditik badoaz zer joango ote den errekatik. Negu eta udaberrian ez litzateke arazorik egongo euria sarri egiten duenez erreka itxuran joango delako. Uda eta udazkenean, berriz, arazoa sor daiteke, udazkenean batez ere.

Luis Errastik dioenez oraindik ez da gutziz erabaki baina hainbat hipotesi darabilte eskuartean. "Erreka ezin da urik gabe utzi, bestela alferrik ari gara garbitzen, urik gabe ere arrainik ezin delako izan. Hori konpontzeko hainbat bide egon daitezke baina egokiena Urkulutik ura jeistea dela iruditzen zaigu". Urkulutik Bainuetxeko errekatxora bideratuko litzateke ura eta hemendik Debara. Konponketa hau ez da agertzen Deba erreka berreskuratzeko proiektu barruan baina argi dago zerbait egin beharko dela.

## Herria hankaz gora

Hankaz gora izan da herria azken hilabeteetan eta jendea ohitu ere egin da kaleak zulatuta ikustera. Hala eta gutziz, lanak, askoz luzeagoak izan zitezkeen baina

Aretxabaletako Udalak azken urteotan egindako inbertsioei esker urtebetean bukatuko dira.

Urtero-urtero uren saneamendu eta hornikuntzarako plan espezialerako, "PEAS" deritzaionerako, dirua gorde eta erabili da. Horrela bada, herriko hainbat auzune eta kale urak jasotzeko, kolektore lanak hasi aurretik, jadanik gertatuta zeuden, Bedarreta, Andramari eta Loramendi esaterako. Adar osagarri hauek eginak ego-teak lanak asko erraztu ditu.

Egindako lan honetatik emaitzak jaso ahal izateko, bigarren mailako adar guztiek ere kolektore hodi nagusira jo beharko lukete. Honen ardura Udalak izango du, kolektorera zuzenean jotzen ez duten urentzat bigarren mailako kolektoreak egin eta hondakin-urak bertatik bideratzea hain zuzen. Jose Mari Segovia hirigintza teknikariaren esanetan "industrietako ur isurketa guztiak zehatz-mehatz zainduko dira eta horren ardura Ur Kontsortzioak izango du".

**Hainbat kexa udaletxean**

Kexak ere ez dira faltatu udaletxean. Hodiak sartzeko zulo izugarriak egin dituzte kaleetan eta

**Udalak izango du espaloi eta espaloietako jeitsierak konpondu eta kalea orokorrean txukun uzteko ardura**

horrek beste infraestruturaz bultzangan izan du eragina: aurretik zegoen saneamendu sisteman, argian, telefonoan, gasean, eta batez ere ur horniketan. Kaleak lehenbailehen asfaltatzea ere eskatu izan du hainbat herritarrek "horrela

eginez gero ordea, lurra ez da erabat asentatzen eta uste baino lehenago errepidea egoera txarrean egongo litzateke" dio Jose Marik.


Lan guztiak amaitzean berriz, Udalak izango du espaloi eta espaloietako jeitsierak konpondu eta txukun uzteko ardura. Trafiko seinaleak ere berriztu egingo dira eta trafikoa, kasu gehienetan lehentara itzuliko da. Beste kasu batzutan, berriz, aldaketa txiki batzuk egongo dira hobetu nahian.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako kolektore lanak bukatzekotan dira. Erreka erabat garbitu orduko ordea, denboratxoa pasatuko da Arrasatekoa hasita ere ez baitago. Kolektorea guztiz bukatuta 2003. urterako egotea espero da. Orduan hasiko da Deba errekararen berreskuratze prozesua. Zenbat urte pasatu beharko diren berriz arrainak ikusi ahal izateko, ez dakigu, baina garbi dago lehenengo pausua eman dela hori lortzeko.

**Trafikoa lehenetara**

Trafiko arazo ugari izan dira herrian kolektorea eraiki bitartean. Zenbait kaleren norabidea aldatuta egon da, baina Gabonetarako lanak bukatzat ematen direnez lehenetara itzuliko da trafikoa. Hala eta

guztiz kale batzuk aldaketak jasango dituzte eta Udalak horren berri eman nahi du. Planua hilabete honetan ikusgai egongo da udaletxeko ganbaran eta herritarrek, ados egon ezean, alegazioak aurkezteko aukera izango dute.



**Puntu garrantzitsuenak:**

- **Mitarte eta Durana** kaleak lehenetara, botikatik elizaruntz.
- **Errekabarren** kaleak norabide bakarra izango du elizatik Loramendiruntz.
- **Santa Kurtz** kalea lehenetara. Eskola orduetan itxita egongo da. Aste bukaeran bi norabideak.
- **Bizkaia, Gorbeia eta Aralar** kaleek norabide bakarra izango dute.

Udaltzainek, aldaketak errespetatu ezean, hasieran abisuak emango dituztela jakinarazi nahi dute. Abisuen ostean isunak etorriko dira.



Preferente taldea Touringen aurkako partiduaurretik

## Ibarrako zelaian zorterik ez

Aurtengo denboraldi honen hasieran Ibarrako futbol zelaia ez dio zorte onik eman UDAko Preferente taldeari. Iñaki Ceciagaren taldeak etxean garaipena lortzeko formularekin ez du asmatzen. Pasa den domekan Errenteriako Touring taldea hartu zuen etxean preferente taldeak eta 0-3 galdu zuen. Momentu honetan bigarren dagoen Touring indartsu etorri zen, eta kontuan hartu behar da, gainera, talde honek ez duela oraindik par-

tidurik galdu. Touring lehenengo zatian aurreratu zen gol batez eta beste biak bigarren zatian sartu zituen. Etxekoak gogor ahalegindu ziren aurkariaren ate ingurura iristen eta gol aukera bat baino gehiago ere izan zituzten. Dena dela, baloiak ez zuen Touringen atea aurkitu. Partidu honen ondoren, preferentea 9. postuan dago 14 punturekin. Hurrengo ihardundian Seguraren aurka kanpoan neurtuko dituzte indarrak.

## Squashean hamazortzi partehartzaile

Kiroltxean antolatu den squash txapelketak erantzun ona izan du kirol hau egitea gustoko dutenen aldetik, eta guztira aurtengo txapelketa honetan hamazortzi pertsonak izena eman dute. Horien artean lau bakarrik dira atxabaltarrak. Gainontzeko gehienak arrasatearrak badira ere, urrundik heldutakoak ere baditugu, Zornotza, Zarautz eta Lezamakoak esaterako.

Txapelketaren iraupena bost aste ingurukoa izango da, eta zapatu goizetan jokatuko dira partiduak. Beraz, gabonak aurretik irabazleak nortzuk izan diren jakin ahal izango da.

## Behobia-Donostiarako autobusa

Behobia-Donostia lasterketa popularrera joateko autobusa antolatu da kiroltxetik. Lasterketaren ondoren Zarauzko auzo bateko jatetxean bazkaldu ahal izango da. Bidaiaren prezioa 6.000 ptakoa da eta horretarako izena lehenbailehen eman beharra dago kiroltxean bertan. Gogoratu, bestalde, dortsal eskaria norbere kontutik egin behar dela.

## Euskal Presoak EHra hiru mendi tontorretatik aldarrikatuko da

Euskal presoak Euskal Herrira plataformak, UDA kirol elkarte eta Murruxio eta Zاراia mendi taldeen laguntzarekin batera mendi irteera antolatu du datorren domekarako, hilaren 7rako. Irteera horren helburua presoek Euskal Herriratzeko mendi tontorretatik eskatzea da. Horretarako hiru taldetan banaturik hiru irteera egingo dira, Kurtzebarri, Asensio eta Muru mendietara. Irteera goizeko 9etan

izango da udaletxetik. Mendi baikoitzaren tontorrean Euskal Presoak Euskal Herrira dioen izara jarriko da eta horrela Aretxabaletako herriak mendi tontorretatik egingo du eskaera. Irteera herritar denei zabalik dago, beraz, guztion inplikazioa eskatzen du plataformak.

### Ekintza gehiago

Mendi ibilaldi honekin batera plataformak beste hainbat ekintza

ere egitea pentsatuta du. Abendu aldera, esaterako, herriko koadrilen artean herri jokoak eta afizionatu eta profesional mailako pilota partiduak batuko dituen kirol egun bat antolatzeko asmoa dago. Guzti horrekin plataformak bere barnean dauden talde eta elkarteak inplikatu nahi ditu, horrela Euskal presoek Euskal Herriratzeko gizarteko alderdi desberdinetatik aldarrikatu asmoz.

Izozkitekiki-Gozotegia

**IZOZKITEGI**

Otalora, 11  
Tfnoa: 943 79 93 58  
ARETXABALETA

**BASABE**

**jatetxea**

Basabe bidea z/g  
Tfnoa: 943 79 91 84  
Aretxabaleta



Zenbaki

Basabe  
Industrialdea C Pab.

**Aretxabaleta**

Tfnoak: 943 71 21 12  
943 71 22 68

**Aholkularitza**

# Alfonso Luermo

## Behobiatik Donostiara

Lau urtetan Behobia-Donostian parte hartu barik egon ondoren, aurten berriz ere maratoi erdi hau egitera animatu da Alfonso Luermo. Bertan egoten den giro beroa atsegin du bereziki zamorar honek, nahiz eta, gaur egun lasterketan egoten den partizipazio itzela ez duen oso gogoko.

Berrogeitabi urte ditu, baina oraindik ere korrika egiteko sasoi betean dago.

• **Behobia-Donostia lasterketa egiteko gertu?**

Bai. Azken lau urteetan korritu barik egon naiz, ume gaztea baitaukagu. Dena dela, aurretik asko gustatzen zitzaidan maratoi erdi horretan partehartzea. Bederatzi urte egin nituen jarraian Behobia-Donostia egiten. Orduan, gainera, jende kopurua askoz txikiagoa zen eta gehiago gustatzen zitzaidan.


• **Egia esan azken urte hauetan kopurua asko igo da. Zergatik uste duzu aldaketa hori?**

Korrika eta kirola egitea modan dago. Gainera Behobia-Donostiakoa oso data ona da, opor ostea izateaz gain, oraindik ez du hotz haundirik egiten. Bestalde, lasterketa hau oso popularra da, popularrena nire iritziz. Koadrilak moztortuta joaten dira eta zirkuitoa bera polita da.

Gaur egun hamar mila pertsonatik gora korritzen du. Ni gogoratzen naiz, hiru mila partehartzaile izaten zirenekoa. Azken aldiz korritu nuen, adibidez, bost mila partehartzaile inguru izan ginen, gaur egun kopuruaren erdia.

• **Jarri diozu zeure buruari helbururik?**

Ba... ez dakit, horrenbeste denbora da korritu ez dudana. Ordu bat eta hamar minututan egitea gusta-



*“Ibilbideak  
gorabehera ugari  
ditu eta indarrak  
bukaerarako  
gordetzea komeni  
dira”*

tuko litzaidake, baina ez dakit zerk irtengo duen. Nire errekorra, bestalde, ordu bat eta zazpi minututan daukat.

• **Zein ezaugarritako ibilbidea da?**

Ibilbideak gorabehera ugari ditu eta hankak apurtzeko benetan aproposa da. Bukaerarako indarrak gorde beharra dago, azken aldatzean Miracruzen ondo erantzun ahal izateko. Lehenengo hamar milakoa bigarrena baino polikiago egitea hobeto dela esaten da. Dena dela, horrenbeste jende egotean, eraman egiten zaituzte.

• **Eta marka hori lortzeko zer nolako entrenamendua egiten ari zara?**

Astero 90 eta 100 km bitartean

egiten ditut. Normalean astean zehar bakarrik aritzen naiz eta domeketan lagunekin entrenatzeko gelditzen naiz. Lagunekin beti gustorago aritzen da.

• **Bestalde, korrikan federatu izan zara, zein lasterketetan hartzen duzu parte?**

Aurten ezik urtero federatu izan naiz. Beterano mailako hainbat krosetan aritzen naiz. Aurten ez dut federatzea pentsatu, pixkat nekatuta nagoelako. Dena dela, nire aldetik korritzen jarraituko dut eta Behobiakoa entrenatzen jarraitzeko aitzaki ona izango da.

• **Lana, familia eta korrika. Nola moldatzen zara hirurak egiteko?**

Lana adibidez beti goizez egiten dut, beraz, horrek aukera ematen dit arratsaldetan siesta apur bat egin eta gero korrika egiteko. Bestalde, orain umea nagusiagoa denez askoz ere hobeto moldatzen naiz dena aurrera eramateko.

• **Semeek jarraitzen dute zure zaletasuna?**

Nagusienari futbola gustatzen zaio eta bestea oso gaztea da oraindik. Korrikak ez ditu gazteak erakartzen. Oso gazte gutxi dira, korrikan federatzen direnak. Iaz hainbat karreretan hartu nuen parte eta jendearen partehartzea oso txikia izan zen. Pena bat da, baina gaur egun gazteek beste kirol batzuk gogokoago dituzte.

• **Gure bailaran esaterako nola ikusten duzu korrikaren etorkizuna?**

Gauza bat da korrika egitea ateratzea eta urte sasoi batean Behobia-Donostiako lasterketa egitea. Baina federatu mailako korrikari ez diot etorkizunik ikusten gure bailaran. Orain Arrasaten egingo dituzten pistekin egoerak hobera egitea espero dut.

# Uste zena baino gene gehiago

*Incyte Pharmaceuticals Incorporated* enpresako ikerlariak jakitera eman dutenez, gizakien gene-kopurua aurrez uste zena baino handiagoa da; ondorioz, genetika-arazoei irtenbidea eman nahian ari diren ikerlariei etorkizuna belztu egin zaie. Aipatutako enpresako ikerlarien arabera, giza gorputzean 140.000 gene inguru egon daitezke, eta ez, aurrez uste zenez, 80.000 eta 100.000 generen arteko kopurua.

Jakina denez, geneek giza gorputzeko zelulak programatzeko zeregina duten proteinak sortzen dituzte. Herentziaz jasotzen diren gene horietako batzuk bere kabuz gaixotasunak eragiteko gai dira, baina beste gaixotasunen jatorria gene-multzo desberdinetatik sor daiteke. Gaixotasun horiei buruzko ikerketak are eta zailagoak izango dira gene-kopurua zenbat eta handiagoa izan, geneen arteko harre-

manak gehiago izan daitezkeelako. Orain arte, herentziaz jasotako gaixotasun batzuen geneak aurkitzea ez da oso korapilotsua izan. Gaixotasun batzuetan-presio altua edo asma adibidez-, gene batek baino gehiagok du eragina, eta aurre-rapausoak eman badira ere, ikerlariak nahikoa lanekin ari ziren. *Incyte Pharmaceuticals Incorporated* enpresako ikerlariak egin dituzten kalkuluak egiaztatuko balira, hemendik aurrera zientzilariek arazo gehiago izan ditzakete.

Zientzilariek diotenez, gizakien gene multzo osoak 3.000 milioi ADN molekula-bikote izan ditzake. Hala ere, gene-kopurua -ADNaren sekuentzia zehatzak- kalkuluz ateratako zenbakia da, ez baitago jakiterik zehaztasun osoz ADN sekuentziak noiz hasten eta noiz bukatzen diren. *Incyte Pharmaceuticals Incorporated* enpresako ikerlariak,

beren kalkuluak egiteko bi sistema erabili dituzte. Batetik abiatuz giza-kiaren gene-kopurua 130.000 dela atera zen; bestetik, berriz, 143.000. Zenbaki biak alderatuta 140.000ko batezbestekoa atera dute zientzilariek.

Giza Genoma proiektuan lanean ari diren zientzilariek ere, kontuan hartu beharko dute *Incyte* enpresako ikerlariak egin duten kalkulua. Izan ere, Giza Genoma proiektua 2003. urtean bukatzen zen. Dena den, data hori, giza gorputzean 80.000 eta 100.000 gene inguru egon zitezkeela pentsatuta ezarri zen. Giza gorputzeko geneen mapa egitea helburu duen Giza Genoma proiektua 1990. urtean jarri zen abian, eta dagoeneko 30.000 gene identifikatu eta aurkitu dituzte proiektuan lanean ari diren 12 herrialdek.

## Espaziora!... itsasotik abiatuta

Atzerako kontaketa, 3, 2, 1,...0, badao espaziuntzia. Horrelako irudiak arrunt bihurtu dira, oso maiz gertatzen baitira. Hemendik aurrera, berriz, berrikuntza ere iritsi daiteke espaziuntzien jaurtiketen alorretik, horretarako gero eta gehiago itsasoa erabiliko baita. Zuzenago esanda, itsas-plataformak erabiliko dira.

Sea Launch proiektuak aurten izan du estreinaldia -martxoan, Zenit espaziuntziaren jaurtiketarekin-, baina etorkizunari begira, badirudi ontziak espaziora bidaltzeko modurik erabiliena izango dela. Izan ere, itsas-

plataforma mugikorra izan daitekeenez, iparrarekiko 0°-tan koka daiteke, Lurreko Ekuatorean. Kokapen hori satelite geoestazionarioak jaurtitzeko egokiena da, erregaia aurrezteaz gain, sateliteen bizitza luzatzen baita. Sea Launch proiektuak argia ikusi zuen arte, Ekuatoretik gertuen zegoen jaurtiketarako gunea Kourukoa zen, iparrarekiko 5°-tara. Dena den, eragozpenak ere baditu itsas-plataformetatik jaurtitzek, batetik muntatzea garesti izatea eta bestetik itsasoaren egoerak.



Elhuyar

**BEIRALAN**

- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiaik

**KRISTALDEGIA**

Herriko plaza, 8 behea  
☎ 943 79 81 78 ARETXABAleta

**Jose Mari bodegoia**

**Eguneko menua**

Nafarroa, 6  
☎ 943 79 20 45  
Aretxabaleta

**Martín**

RELOJERIA - BITXITEGIA

**Bere bezeroen zerbitzura**

Mitarte, 16  
Tfnoa: 943 79 01 72

## Javier Clementekin soldadutzan

**A**rgazki kurioa aurkitu dugu ale honetarako. Honez gero gehientsuenok ezagutuko zenuzuten bertan agertzen diren bi behintzat. Bata, herrikoa delako **Felix Pagalday** (erdian) eta bestea famatua delako **Javier Clemente** (eskuman). Hirugarren soldadua ere batek baino gehiagok ezagutuko zuen, bera Elorrixokoa izan arren Aretxabaletara sarri etortzen baitzen senitartekoak zituelako. **Igartua** da bera.

70-71 urte bitartean Felix Pagalday Gasteizko Arakako kuartelean soldadutzan egon zen. Igartua eta Javier Clemente, berriz, Athletic futbol taldeko jokalaria ziren garai hartan eta boluntario gisa egon ziren soldadutzan. Argazkia Felixena izan arren honek, Juan Ramon Bengoari oparitu omen zion Athletic zalea zelako.

Zapatila horiekin behintzat ez zuen futboleko egingo Clementek!



*Argazkia: Juan Ramon Bengoari*

*Informazioa: Felix Pagalday*

### AMETS TABERNA

Iparragirre, 4  
Tfnoa: 943 79 01 29  
**Aretxabaleta**

### OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 943 79 98 74  
**ARETXABALETA**



### BAZTER-ALDE JATETXEA

SASOIKO  
JAKIAK  
GIRO  
ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 943 79 24 58 ARETXABALETA



## LANA

- ◆ **Zerbitzari** euskalduna behar da. Tfnoa: 945 44 50 86
- ◆ **Emakume bat behar** da goizetan bi orduz umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 943 79 33 19.
- ◆ **Emakume bat behar** da haurra zaintzeko. Tfnoa: 656 410 008 (gaueko 8ak eta 10ak bitartean deitu).
- ◆ **Emakume bat behar** da etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 656 410 008 (gaueko 8ak eta 10ak bitartean deitu).
- ◆ **Emakume bat behar** da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 943 79 37 03 (19:00etatik aurrera).
- ◆ **Neska** prest zapatu eta domeketan **lan egiteko**. Tfnoa: 943 79 03 37.

### Lan deialdi publikoak

- ◆ Etxarri-Aranatzeko Udalak **zerbitzu anitzeko langilea** behar du. Titulazioa: OHO, FPI edo baliokidea. Aurkezteko epea: 99/11/8 Oinarriak: NAO 99/10/8
- ◆ Añorbeko Udalak **liburutegi-ko arduraduna** behar du. Titulazioa: BBB, LHII edo baliokidea. Aurkezteko epea: 99/11/10 Oinarriak: NAO 99/10/11

### Langaiko lan eskaintza

- ◆ Deba Behean dagoen enpresak **delineante industrial**a behar du. Erref: 25192/2
- ◆ Goierrin kokatutako enpresa batek **kotxeen mekanikari-elek-**



**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.**

**trizista** behar du. Erref: 25199/2

- ◆ Urola Erdiko enpresarako **egurraren arotz laguntzailea** behar da. Erref: 25202/3
- ◆ Arratia-Nerbioiko enpresa batek **aparejadorea** behar du. Erref: 25188/2



## DENETIK

- ◆ "Spaniel breton" arrazako 3 hilabeteko 2 txakur salgai. Tfnoa: 943 79 19 63.
- ◆ Garajea salgai Murubide auzoan, lehenengo solairuan. Tfnoa: 943 79 32 73.
- ◆ Volkswagen Comby furgoneta salgai. Guztiz ekipatuta. Tfnoa: 943 71 49 15, 21:00etatik aurrera.
- ◆ Datorren ikasturtean arratsaldez alemaneko klaseak emateko irakaslea behar da. Tfnoa: 943 79 00 69, 15:00etatik 18:00etara
- ◆ Txakurra eramateko erre-molke berri berria salgai. Deitu 943 77 05 75 telefonora.
- ◆ Kanpindenda kanadiensea eta kotxe gainean eramateko PVC-zko kaxa salgai. Tfnoa: 943 79 23 69.



## ETXEBIZITZA

- ◆ Lokal komertziala salgai edo alokagai dago Aretxabaletan, toki zentriko eta eguzkitsuan. Orain artean ileapaindegi eta edertze areto moduan funtzionatu du. Tfnoa: 943 77 12 70.
- ◆ Baserri zahar bat erosiko nuke berrizteko asmoz Deba Baidaran. Tfnoa: 649 67 19 14.
- ◆ 57 m<sup>2</sup>ko garajea salgai Errekabarren kalean. Tfnoa: 943 79 74 73.
- ◆ Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 649 16 86 69.
- ◆ Etxea erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 61 68.
- ◆ Etxea salgai Aretxabaletan. 72 m<sup>2</sup>, zentrikoa eta berriztua. Garajea aukeran. Tfnoa: 943 770227.

**PENSA SUNZUE S.A.**  
**FELIX PAGALDAY**  
 Laborantza tresnak  
 Ongarriak- Haziak  
 Mitarte, 7 behea  
 ☎ 943 77 00 33/79 42 56

**Jauregi Okindegia**  
 Otalora, 10  
 Tfnoa: 943 79 57 47  
 Aretxabaleta

**CONSUM EROSKI**  
*Orain arrandegi eta okindegiak, zatoz!*  
 Mitarte kalea z/g 943 79 92 11  
 ARETXABALETA

# Haizea, kolorea eta hostoak



“kabideei” buruzko tesia aurkeztu zuen aurreko batean eta epaimahaiak nota onenaren saria eman zion. Esan beharra dago, gainera, aipatutako epaimahaian bi atxabaltar zirela: **Jon Sarasua** eta **Miriam Urkia**. Agian lasaitasun gehiago emango zion epaimahaian bi atxabaltar zeudela jakiteak. Kontuak kontu, lan bikaina egin du Asierrek eta zorionak eman beharrean gaude.


Berri pozgarri honez gain, bestelako kotiletoxoak ere heldu dira nire belarrietara. Parrokian **Pastoral kontseilurako** bi herritar aukeratu behar dituzte eta horretarako hauteskundeak egingo dira datozen asteotan. Bestalde, gure herrian **Caixak** bankua zabaldu behar duela ere jakin dut, lehengo Burgalesena zegoen lekuan. Ez da berri txarra hori, herritarron poltsikoetan diru ugari dabilenaren seinale baizik.

Nireak ez dabilta horren aberats. Gutxiago gastatu eta aurreratzen hasi beharko dut. Dena gastatu eta gastatu, hau ez da plana! Onena gauzak umorez hartzea da. Horixe egin du atxabaltar koadrila batek. Bere **10. urteurrena** ospatzea pentsatu du. Horretarako saskibaloi partidu bat jokatu dute, solteroek konprometituta daudenen aurka. Horrez gain, plazan nonbaiten plakaren bat jartzeko asmoa ere badute, euren betiko lekuaren adierazgarri. Nortzuk diren ez dakit, baina azken datu hau jakinda imaginatzen dut nortzuk izango diren, eta zuek? Hala ez bada, eman ezazue bueltatxo bat plazatik.

Udazkenak berarekin ekarri dizkigu bere ezaugarri nagusienak, haizea, kolorea eta hostoak. Horren ostetik euria ekarri dute lainoek. Dena dela, ehiztariak pozik egoteko moduan dira. Lastima aurreko eguaztenean mendira joaterik izan ez zutenek. Uso pasa izan zen egun hartan. Duda barik, zortea izan zuten egun horretan eskopeta hartu eta mendirantz joan ziren ehiztariek. Beste batzuk lanean zeudela ikusi behar izan zituzten, zeruan ageri ziren beltz une pilak. Kaka zaharra! esango zuen batek baino gehiagok. Ni kasualitatez, erosketak egitera atera nintzen orduan eta Belorrietako etxeak egiten ari diren langileak zerurantz begira ikusi nituen. Orduan nik ere gauza bera egin nuen, eta naturak sasoi honetan eskaintzen duen ikuskizun ederraz gozatzeko aukera izan nuen. Zoragarria benetan!

Baina ehiza ez da izan udazkenak ekarri duen altxor bakarra. **Asier Aranguren**ek “Herri komuni-

## Liburutegiko txokoa



### Erloju mekanikoa

Philip Pullman

Desclée de Brouwer, 1998

Philip Pullmanek errealitatea eta fikzioa nahastuz, denbora erloju makanikoaren erritmoan igarotzen zen garaian kokatzen gaitu, intriga, misterioa eta majia elkartzen dituen nobela bikain honetan.

Istoriok hau Alemaniako herritxo batetan gertatzen da. Herriko erlojugile eskolan ikasle batek bere ikasketak amaitzean elizako dorreko erlojuari figura berri bat ipini behar izaten zion. Erloju horrek ehun figura baino gehiago zituen, urte osoa behar zelarik figura guztiak ikusteko. Karl ikasleak ordea ez du ezer prestatu, eta berari laguntzera etorriko den pertsonaia berezi bat agertuko da istorio honen erlojuari martxa emanez.

Fantasia maite duen edozein irakurlek gustora hartuko duen liburua da hau, 14 urtetik aurrera irakurtzeko modukoa. Erdarazko bertsioa Nobelen sailean aurkituko duzue.


**Joseba Lopez de Armentia**

# AZAROA

**7**  
domeka

## MENDI IRTEERA

Aretxabaletako Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak mendi irteera antolatu du. Hiru taldetan banatu eta Kurtzebarri, Muru eta Asensio mendietara igoko da gailurrean EPEH izarak jartzeko. Irteera goizeko 9etan udaletxetik.



Kurtzebarri, Muru eta Asensio mendi gailurretara igoko da jendea izarak jartzera

## INTERNAZIONALISTA EGUNA

Internazionalista eguna ospatuko da Astigarragan. Goizeko 10etan dianarekin hasiera emango zaio eta arratsaldeko 5,30etan izango den kontzertuarekin amaiera eman arte ekitaldi ugari izango dira: kaleko animazioa, mahai informatiboak, ekitaldi politikoak, herri kirolak, herri bazkaria,...

## EUSKAL HERRIAN EUSKARAZEN KANPAINA

Euskal Herrian Euskarazek aurten 20 urte betetzen dituela-eta Euskararen Tunela erakusketa ibiltaria herriz herri dabil. Martizen honetan Arrasaten aurkeztu eta eguaztenetik domekara bitartean izango da bertan.

**9**

martizena

## GALARTZAKO DORRE-TXEAREN INAUGURAKETA

Goizeko 10etan Galartzako dorretxea inauguratuko da eta ondoren eguerdiko 12etan Oñatiko Bidaurretako dorretxea.

## BEHOBIA-DONOSTIA

Behobia-Donostia maratoi erdia egingo da. Behobian hasi goizeko 11etan eta Donostian emango zaio amaiera.

**14**

domeka

## Lasai

Mirian Maiteca  
MASAJISTA

Lezama merkatal zentrua  
Santa Kurtz, 24 etxabea  
20550 Aretxabaleta

Masaje terapeutikoan  
Posturen azterketa eta  
egokiizean  
diplomatus

Tfnoa: 943 77 04 34

## Leibar arrandegia

Mitarte, 1 - Loramendi, 1  
Tfnoa: 943 77 13 79  
ARETXABALETA



943 71 20 02

## GARBITU S. KOOP

*Garbiketa orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 943 79 01 28

## ITURGINTZA

**J.J**  
Jose Jabier Irure  
URA, GASA ETA  
KALEFAZIOA

Tfnoa: 943 79 07 34  
943 79 31 87

## GARBITU S. COOP.

*Garbiketa orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 943 79 01 28

## ikastaroak

**TALOGINTZA IKASTAROA**

Arrasateko Ekin Emakumeak taldeak talozale guztientzat talogintza ikastaroa antolatu du. Azaroak 6an, zapatua, goizeko 10etan izango da AED elkartearen lokalean. Izena azaroaren 5a baino lehen ematea komeni da AEDko lokalean bertan.

## lehiaketak

**ARGAZKI LEHIAKETA**

ILARGI Zaldibarko Argazki Taldeak, IX. argazki lehiaketa antolatu du. Gaia askea izango da eta koloretako bi argazki aurkeztu behar dira. Onartuko den neurri haundiena 30x40 zm. da eta hau baino argazki txikiagoak neurri honetako kartulina gainean eraman behar dira. Argazkien atzekaldean, izenburua, egilearen izena, helbidea eta telefonoa jarri behar dira. Aurkezteko epea azaroaren 17an bukatuko da. Sariak:

1. garaikurra eta 25.000 pzta.
2. garaikurra eta 17.000 pzta.
3. garaikurra eta 12.000 pzta.

Korreoz bidaltzeko helbidea: ILARGI Argazki Taldea  
Olazar kalea, z/g  
48.250 Zaldibar (Bizkaia)


**BEHARREZKO  
TELEFONOAK**
**Aretxabaleta**

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskalgetia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

**Udaltzaingoa**

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

**Larrialdiak**

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

**Garraioak**

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15


**Aste honetan Arientza ikusgai**

Aste pare batean auzoen inguruko erreportajerik egon ez bada ere (batean arazo teknikoak zirela, bestean sagardoa izan zelako ikusgai) aste honetan berriz bueltatuko dira baserriak Atxabalta ezagutzen saiora. Oraingoan Arientzak hartuko du txanda eta bertako baserri,

zelai eta txoko izkutuak erakutsiko dizkigute. Julen Abasolo auzo alkatea ere mintzagai izango da.

Gogoratu telebistako emisioa errepikatu egiten dela. Martizenean hiru aldiz ikus daiteke albistegia eta eguakotxetan bi aldiz, bai albistegia, bai Atxabalta ezagutzen saioa. Orain ez dago Atxabalta telebista ez ikusteko aitzakiarik.

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Agenda Argazki-zaharrak Kirolak	ALBISTEAK Agenda Eguraldia
20:30	ALBISTE ERREPIKAPENA	ATXABALTA EZAGUTZEN
21:00	ALBISTE ERREPIKAPENA	ALBISTE ERREPIKAPENA



Oraintxu zabaldu du Lausitta taberna Mariam de Palmak, lehen Juliantxo taberna zena. Lehenagotik ere ezagutzen zuen Mariamek tabernako mundua, mutila tabernaria izateaz gain, bera ere zerbitzari ibilitakoa baita. Arrasatearra da baina mutila eta lagunak atxabaltarrak ditu.

• Nola animatu zara Lausitta taberna zabaltzera?

Beti aritu izan naiz zerbitzari lanetan eta aukera hau ikusita animatu egin naiz.

• Lan asko suposatzen du taberna zabaltzeak?

Hasieran bai, dena martxan eta anto-

latuta jarri artean... Gainera buruan mila proiektu eta ideia dituzu eta denak ezin aurrera eraman.

• Zer eskaintzen du Lausittak?

Beste tabernekin eskaintzen dutena eta horrez gain pintxoetan espezialitatea.

• Zeuk egiten dituzu pintxoak?

Bai, laguntza txiki batekin.

• Mutila ere tabernaria da.

Beraz, lan hau gertutik bizi izan duzu.

Bai, gainera ni ere zerbitzari ibilitakoa naizenez...

• Zelakoa izan behar du tabernari batek?

Bezeroekin atsegin, langilea eta lanerako gogoia duena.

• Asko aguantatu behar da barraren ostean?

Bai, dexente, publikoari begira dauden lan guztiak bezalaxe.

• Eta zer egiten du arrasatear batek Lausittan?

Mutla eta lagunak atxabaltarrak ditut eta neuk ere hemen irten izan dut. Oso gustora sentitzen naiz Atxabaltan.

• Zein iritzi duzu Elgeako parke eolikoaren inguruan?

Ni energia alternatiboaren aldekoa naiz baina ingurugiroari suposatuko

dion kaltea kontuan hartu behar da. Dena dela, proiektua ez dut oso gertutik jarraitu.

• Idazkaritza ikasten ere ari omen zara.

Bai, praktikak egiten ari naiz Aita Menni ospitalean.

• Eta zer gurago duzu, tabernari lana ala idazkariarena?

Oso lan desberdinak dira. Niri biak gustatzen zaizkit. Momentuz hauxe daukat eta gustatzen zait. Dena dela, noizbait idazkari lanetan hasten banaiz, taberna ere mantentzea gustatuko litzaidake.

• Bestelako gaiak ikutuaz, aukeran telebista edo zinema?

Zinema, nire ustez pelikulan gehiago sartzen zara eta ez dago publizitaterik.

• Gonak ala prakak?

Gonak gehiago gustatzen zaizkit baina prakak erabiltzen ditut, gehienbat erosotasunagatik.

• Liburu bat?

“La conjura de los necios”.

• Kolore bat?

Urdina.

• Aurrera begirako helburua?

Beno, tabernako hainbat alderditan hobetzen joatea.

## KOMIKIA

### BALITXAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

**Telebanka**  
**901 333 444**

**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**

*Telebanka.*  
*Zure beste sukurtsala.*

**Telebanka.**



**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**

**Erantzun**  
**zuzena**

# focus



**ORAIN**

16i - 100 cv

20i - 130 cv

TDi - 90 cv

Europar bere kategorian txoke eta estabilitatean liderra

**DEBA GARAIKO  
KONTZESIONARIO OFIZIALA**



**Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE  
Tfnoak.: 943 790744 / 943 790745**

